

beste ainbat aszetikoenaren ondoan
bai laburki! Ezezkoa baiño ardura-
tsuago haiezkoa Teresa'k azalduko

digu; ipintzekoa kentzekoa baño
luzekiago.

JAKIN-sariketa

Bere egunean adierazi zan bezela, egin da JAKIN-sariketa, ta maiburukoek eman dute erabakia. Gogoan ez dutenentzat, berriro gogoraten dizuegu: epailleak Mitxelena ta Txillardegi jaunak, Aita Santiago Onaindia (karmeldarra), Imanol Lekuona Apaiz jauna, Aita Iturria (prantziskotarra) izan dira. JAKIN'en. 1960'ko urtean, argitaratu dan lanik onena aukeratu bear zuten bostok. Ortara, esan dute, beren eritiziz, zeintzuk ziran lan egokienak, eta bakoitzak leenengo lauak izendatu ditu, beren balioeri zegokienez ordenatuaz.

Auek onela, bosten artean leenengo lau maillatan banatu dituzten lanak auek izan dira ta ordena ontan gelditu dira:

1.—Intxausti, Arantzazu'koa: SCHOPENHAUER EDO ZORIONIK-EZA:

2.—Jose Azurmendi, Arantzazu'koa: *Adimen beartzea*:

3.—Olaberría, Arantzazu'koa: *Anton Txexoj*:

4.—Osa, Laterandarra: *Nola ezagutu Kristo*:

5.—Sekundino, karmeldarra: *Teresa Deunaren irakatsiak*:

Mikel Lasa: *Georges Bernanos*:

6.—Iztueta, Billaro'koa: *Eriotz-ondorengoaren berri*:

Erdozaincy-Etchart, prantziskotarra: *Berri Ona etorri zauku*:

Intxausti, Arantzazu'koa: *Oteiza'tar Gorka - Arte berri bat?*:

7.—Jose Azurmendi, Arantzazu'koa: *Russell: jakiterik bai?*:

Urange, Billaro'koa: *Aurrerapena ixiltasunaren truke*:

Ulazia, Arantzazu'koa: *Teknika Jainkoaren aurka?*:

8. Intxausti, Arantzazu'koa: *Filosofia, zertarako?*:

Auek dituzu epailleak leenengo lau maillatan eman dituzten lanak. Zorionak irabazleari ta gaiñerako guziei.

Aipamen berezia izan dute, gaiñera: Azurmendi'k (Jon), Joxe Austin'ek (pa-siotarra), Laskibar'ek, eta Saitza'k (Billaro'koa).